




BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1996ko otsailaren 26a. 30. zenbakia. Dohain banatzen da.



Bikote maitemindua
Otto Mueller
1919




ITA MANUEL LARRAMENDI

Txistoki Pasealekua
43. Poligonoa
Telefonoa: (943) 59 35 25
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)

ANDOAINGO IKASTOLA



**KALITATEZKO EUSKAL
ESKOLA
ETORKIZUNERAKO
ITURRI**



2urtetik 18ra



Euskal kulturaren oinarritua

1. **AURKIBIDEA.**
AIURRITARRAK
Jone Larrañaga: "Jango gaitu Internetek".
2. **INKESTA.**
Eta zuk, izan al duzu aurten griperik?
3. **ADUNA.**
Pabiloi industrial berriak.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**
Hirugarren udal batzarraren atarian.
Aldaketak euskalduntzeko dirulaguntzetan.
7. **ASTEASU.**
Hezurretako gaitzei buruzko hitzaldia.
- 8-9. **BILLABONA - AMASA.**
Herriko lanak.
Etxez-etxerako laguntzarako enpresa berria.
10. **ZIZURKIL.**
AHTren aurkako ibilaldia.
11. **ENPRESA.**
SAPA: Espainiako armagintza enpresarik antzi-
nakoena.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**
Maitasunaz.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**
Yoga: Nork bere burua ezagutzeko bidea.
- 16-17. **KULTURA.**
Zizurkilgo Patxi Otegi eskultorearekin solasean.
18. **ERRETRATU ZAHARRA.**
19. **ZER BERRI? / LEHIAKETA.**
20. **AGENDA**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31

Babesleak: Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.

Erredakzioa: Antxiñe Mendizabal eta Ainhoa Oartzabal
Argazkiak: Manu Mujika **Komikia:** Iñaki G. Erro.
Publizitate arduraduna: Iñaki Otamendi. **Banaketa arduraduna:** Iñosen Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Legogordailua:** SS-202/94 ISSN: 1134-0614
Tirada: 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



Jango gaitu Internetek



JONE LARRAÑAGA

Azkenaldi honetan zalaparta sortu du bazterretan ditxosozko moda horrek. "Euskadi" hitza sartu eta Euskal Herriari buruzko informazio erradikala ematen dela zabaldu zuen orain pare bat aste egunkari ezagun batek; telebista piztu eta ADEGI enpresari elkarteak bere zerbitzuak haren bidez eskaintzen dituela jakin nuen; François Mitterrand Frantziako lehendakariari buruzko "Le grand secret" liburu debekatua informazioaren autobideen barrena zabaldu dela hitzetik hortzera izan dute komunikabideek... Internet, jaun-andreak, horixe da komunikabide arloko *hit parade*-a.

Jakinminak bultzatuta ni ere sartu nintzen aurreko batean sarean. Denbora gutxi egin nuen ordenadore pantailaren aurrean, Intereneten arriskuak norainokoak diren ohartu aurretik. Informazio orokorreko aurkibide batean sartu, eta «osasuna» hitzaren gainean egin nion "klik" arratoiari. Haren atzetik, «farmakologia» zioenari, eta ondoren «drogak» azpisailari. Kasualitatez, topatu nuen LSD droga egiteko modua. Egileak, han biltzen zena oso arriskutsua gerta zitekeela ohartarazten du sarreran, eta ez duela inolako erantzukizunik hartzen bere gain. Eman egiten du ordea droga egiteko formula. Eta ez bat, zortzi baizik, droga sintetiko hori egiteko zortzi modu ezberdin.

Informatika munduan eta ordenagailuetan zera baino traketsago izanik ere horrelakoak topatuz gero, zer ez du handik jaso hala izango gai horietan iaioagoa den gaztetxo batek!

Informazioaren autobideen abantailak azpimarratzearrekin hasi ziren kritikoak haren arriskuez ohartarazten, eta sarea handitzen eta handitzen ari den neurrian ari dira arrisku horiek gero eta potologoak egiten. Orain aste gutxi, bi mutikok leherkari indartsuak egin zituzten Andaluzian Internetetik jasotako informazioari jarraiki.

Aurki...

Hori behar zuen artikuluska honek azken hitza. Baina testua izenpetzera noala Egunkaria-ko azken orriarekin egin dut topo. "Internet tragoska bat! Euskal Herriko lehen «zibertaberna» bilakatu da Gasteizko Salsuma ezaguna", dio.

Badatorrela! Jango gaituela aurki!



Albizkari honek Fisko Jaurilatutako Kultura Sakeren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamenduaren laguntza jaso du

ETA ZUK, IZAN AL DUZU AURTEN GRIPERIK?

Gabonak, beherapenak edota sagardotegi garaia bezala urtero-urtero garai beretsuan gripea hizpide izan ohi da. Eztula, gorputzal-di txarra, nekea, sukarra eta orokorrean egonezina izan ohi dira sintomarik ezagunak. Askok birusak jotzen ditu, eta beste askok hartuko ote dituen beldurrez, txertoa hartu ohi dute. Hala ere, gripea gure artetik

oraindik desagertaraztea lortu ez den gaitza da. Urte sasoi honetan medio gut-tien bitartez txertoa jartzeko aholku ematen zaie edadeko gizon-emakumeei batez ere. Badirudi zaharrenek aholkuari jarraitzen diotela. Gainerakoan ohitura ez dago oso zabaldua. Badaude bestalde, txertoa hartzearen aldeko ez direnak.



Javier Maia, langilea. Andoain.

Bai, gripe txiki bat izan dut aurt-en. Baina ez dut egunetan ohean geratu behar izan. Urtero izan ohi dut halako gripe txiki bat, baina hala ere, ez dut txertorik jartzen.



Arantxa Aranbarri, etxekoandrea. Asteasu.

Eguberrietan izan nuen gripea, baina ez naiz erraz gaisotzen den horietakoa. Hala ere, jarabe bat hartu, eta berehala sendatu nintzen. Ez dut txertorik hartzea pentsatu, baina edadetuek eta arazoak dituztenek hartzea egoki iruditzen zait.



Pello Ezeiza, taxista. Aduna.

Nik ez dut griperik pasatu. Hau-rak eta familikoak ordea, gaiso egon dira. Gure etxean amonak har-tu du txertoa, eta nahiz eta urte bat-zuetan griperik ez izan, beste urte batzuetan pasatu izan du. Beraz, esan daiteke batzue-tan bakarrik aurrikusten dela gaisotasuna.



Justo González, langabea. Zizurkil.

Nik ez dut griperik izan, baina etxekoek bai. Inork ez du txerto-rik hartu, baina hala ere, egokiak direlakoan nago. Bestalde, inoiz ez ditut laranjak gustokoak izan, eta orain aldiz, egunero jaten ditut, beste griperik ez izateko edo.



Garañe Arribillaga, ikaslea. Andoain.

Ez, aurt-en ez dut griperik izan, ez naiz negu osoan orain arte gaiso jarri. Etxean ere ez du inork gripe-rik izan. Hala ere, aurt-en familia osoak hartuko dugu gripearen aur-kako txertoa.



Juan Ortiz, ikaslea. Billabona.

Aurtengo neguan pasatu dut gripea. Hala ere, ez da aurtengoa izan dudan lehenengo urtea. Ez dut txertorik hartu, baina bidezkoa iruditzen zait hartzea. Nik dagoe-neko ez dut hartuko, sendatuta bainago.

ALFARO
EGUNEROKO MENUA
Etxeberrieta auzunea
☎ 59 40 27 **ANDOAIN**

BENITO
HARATEGIA
URDATEGIA
Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49
Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50
BILLABONA


**GOSARIAK - APERITIBOAK
BILARRA
GIRO EDERRA!!**
KALE NAGUSIA, 20 - ANDOAIN



PABILOI INDUSTRIAL BERRIAK

Lur sail handiak ari dira urbanizatzen

Pabiloi industrial berriak egiteko lur eremu berriak ari dira urbanizatzen Adunan. Belca eta Endica enpresek, adibidez, pabiloi berriak egingo dituzte Aduna eta Andoain artean. Bestalde, pabiloi handi bat eraikiko dute eta bost enpresa ezberdinei salduko dizkiete pabiloi horren bost zati ezberdinak.

SENIDEAK ELKARTEAREN MOZIOA ONARTU DUTE

Udalbatzak aho batez onartu du Senideak elkarteak aurkeztutako mozioa. Presoak Euskal Herrira ekartzea eta baldintzak betetzen dituzten preso guztien baldintzapeko askatasuna eskatu dute, besteak beste.

Presoen nahiz familiarren oinarrizko eskubideak errespetatzea eta presoak Euskal Herrira ekartzea dira Udalbatzak onartutako erabakietako batzuk. Horrezaz gain, baldintzak betetzen dituzten presoen baldintzapeko askatasuna eskatzea onartu dute zinegotziek: kartzela zigorraren hiru laurdenak bete dituzten presoak eta gaisotasun larria duten presoak aske uztea, alegia. Udalbatzak hartutako erabakiak Gasteizko legebiltzarreko giza eskubideen batzordera, komunikabideetara eta familiarrengana bidaltzea adostu dute zinegotziek. Azkenik, onartu dituzten puntu guztiak aurrera eramateko konpromezua hartu dute Udalbatzako partaideek.

Enpresek leku gehiago behar dutelako ari dira pabiloi berriak egiten. Horretarako leku egokia dago Adunan, hau da, pabiloi berriak eta handiak eraikitzeko lur sail handiak daude. Duela urte batzuk hasi ziren herriko lur sailak sail industrial bihurtzen eta gaur egun ere horretan ari dira.

Biztanlegoaren %19a langabezian

Nahiz eta enpresa ugari herrian pabiloiak eraiki, Adunako bizilagunen %19a langabezian dago. "Langabeziaren datu hori oso aldakorra da, langabetu kopuru hori hogeitahiru herriaren egoera baita" esan digu Jabier Zabala alkateak. "Gaur egun, biztanleak baino lanpostu gehiago dago herrian baina enpresa bakoitzak bere lehengo langileak mantentzen ditu" adierazi digu alkateak. Herrian, kanpoko jendeak egiten duela lan eta herrikoak berriz, kanpora joaten direla lan egitera gaineratu digu.



AUTOEN MEKANIKA OROKORRA
ZABALAGA TAILERRAK

Ama Kandida Etorbidea, DENAC Poligonoa, 203. Pabeloia
Telefona 30 01 69 ANDOAIN



**TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA
EKOIZLEA**

ENPRESEN ZENTRUA
Ama Kandida z/g - 307, Moduloa - ☎ 592923
ANDOAIN

**ZABALA
SAGARDOTEGIA**

ADUNA (GIPUZKOA)
☎ 69 07 74



- Egunero iluntzean zabalik igandeak barne
- Igande eguerditan enkarguz
- Maiatzarte zabalik

**Joxe Mari
ITURRALDE**
ZURGINDEGIA

Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.

ADUNA - ☎ 69 20 81

MIRARI
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2
☎ 590162

ANDOAIN

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZE DIRULAGUNTZEN ALDAKETA

AEK-ko ikasleek protesta egin dute

Euskaren Normalkuntzarako batzordeak HBko partaidearen abstentzioz onartu ditu udal ordenantzan jasotako euskalduntze-alfabetatze ikasketak egiteagatik helduei ematen zaizkien dirulaguntzen irizpideak. AEK-ko ikasleek beren ezadostasuna agertu dute. Leizaur euskaltegiko arduradunen hitzetan, bertako ikasleek ez dute aldaketa gaizki hartu.

Aldaketa nagusiak hauek dira: orain arte edozein ikasleri, asistentzia eta errendimendu maila egokia gairidituz, ematen zitzaien matrikularen prezioaren %30eko dirulaguntza hasieran murriztu eta ondoren desagertu egingo da. Diskriminazio positiboaren irizpide ezarriko da, bai ikasleek diru baliabideei dagokienean bai euskara ikasteko trinkotasunari dagokienean. Halaber, erabilera programa bereziak bultzatuko ditu Udalak, horregatik sektore jakinetako ikasketei-merkatariak, gurasoak adibidez- emango zaie lehentasuna. Langabeei euskara ikasteko programa berezi trinkoak eskainiko zaizkie.

Aldaketak bi fasetan egingo dira: ekainera bitartean edozein ikasleri ematen ari zitzaien %30ko portzentaia %10era jaitsiko da. Eta ekainetik aurrera portzentaia hori desagertu egingo da, eta diskriminazio positiboaren irizpideari jarraituz, baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen eta ikastaro trinkoei emango zaie lehentasuna.

Iritziak

Joxemi Aranburu AEKko arduraduna

Zenbait irizpiderekin ados zegon gaitezke, baina Udalbatzak onartu aurretik erabakia atzeratzeko eta euskaltegiekin hitz egiteko eskatu genien. Ez zuten eskaera onartu, ikasleei aldaketen herri eman genien, eta Udalbarzan bertan protesta egitea erabaki zuten. Bestalde, horrelako erabakiak ikastaro erdian hartzea ez zaigu bidezko iruditzen; ikasleei dirulaguntza jakin batzuk izango zituztela esan zitzaizkien hasieran. Azkenik, egitasmo horiek guztiak aurrera eramateko, zenbait gai tekniko gurekin

eztabaidatu beharko lituzketela uste dugu.

Maria Jesus Elozegi, Leizaur euskaltegiko arduraduna

Hasieran ordenantza aldatu zutela jakin genuenean, kezkatu ginen, baina aldaketak aztertu genuenean ez zitzaizkigun horren larriak iruditu. Ikasleei jakinarazi genien eta ez zuten kezkarik adierazi. Orain dela hiru urte ordenantza onartu zutenean, ez ziguten iritzirik eskatu, eta orain ere berdin jokatzera normalea da. Bestalde, Udalak orain arte eman dituen dirulaguntzen ondorioz, gure euskaltegira behintzat ez da ikasle gehiago etorri. Gure matrikulak ez dira garestiak, eta edozeinek ordain ditzakeela uste dugu.

Gabino Agudo, ENBAko burua

Ez da egia diru gutxiago emango dugunik, aurrekontuak onartu ez diren arren, helduen euskalduntzerako diru gehiago emango dugu. Euskalgingtzen Udalak baditu lagundu beharreko beste egitasmo batzuk. Euskaltegiek matrikulen prezioa igo izan dutenean, inoiz ez digute iritzirik eskatu, eta ez zaigu iruditzen ordenantzaren aldaketa beraiekin eztabaidatu behar dugunik. Gainera, aldaketa onartu eta 30 eguneko epea izango dute andoaindarek alegazioak egiteko, eta banan-banan aztertzeko konpromezua hartu dut nik. Herriarrek jakin behar dute euskara ikasteko euren poltsikotik ere ordaindu behar dutela. Guk baliabide ekonomiko gutxiago dituztenak lehenetsi nahi izan ditugu.



CENTRO OPTICO

OPTIKO - OPTOMETRISTAK

**OTSAILEAN
IKASLEENTZAT
KANPAINA BEREZIA**

Kalenagusia 9 -20140 ANDOAIN
☎ 59 18 17

**FRANCISCO
MENDIKUTE
HARATEGIA**



KaleTxiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

HIRUGARREN UDAL BATZARRAREN ATARIAN

- Senideak orain arte bezala jarraituko du
- Berdin jarraitzekotan Udal batzarra jende aurrera itxiko duela adierazi du alkateak

Hirugarren udal batzarraren atarian alderdiek eta Senideak aurreko bi udal batzarren geraldari buruz eta aurrerantzeko asmoei buruz hitz egin digute. Alkateak bi batzarraldiak bertan behera uztearen arrazoia Senideko kideek "PSOE-PNV kartzeleroak" zioen pankarta udal aretoan ireki izana izan da. Senideak orain arte bezala aretoan pankarta zabaltzen jarraituko duela adierazi du, eta alkatearen erabakia adierazpen askatasunaren eta herritarren parte hartzearen aurkako neurri larria dela.

Alkateak, gobernu hirukoitzaren izenean hitz egin digu eta hirugarren batzarrak bertan behera uzteko asmorik ez duela adierazi digu, hala ere berdin jarraitzekotan neurri gogorak hartu eta ateak ixtera iritsi daitekeela esan digu gutxieneko baldintza demokratikoak ez badira betetzen. Senideak elkartearekin hitz egiteko eta akordioetara iristeko asmoa adierazi digu, hala ere. EAK bezalaxe.

HBk alkatearenak adierazpen askatasunaren aurkako erabaki latzak izan direla adierazi du eta horrelako ekintzek herritarren elkarbizitza eragotzi egiten dutela. Senidearen hitzek ildo berari jarraitzen diote, eta herriko talde guztiei egin die dei gertaerak salatzeke. EAJ-PNVk bestalde, prentsaurrean adierazi duenez, etorkizunean ez du mehatxupean, irainpean eta tentsio-krispazio beldurretan egindako udal batzarrak onartuko.

IU-EBk, hein handian horrelako erabakiek adierazpen askatasuna mozten dutela uste du. Legearen arabera pertsonaren aurka zuzenean irainik egiten ez duen edozein pankarta zabaltzea zilegi dela gaineratuz. PP alkatearen jarreraren alde agertu da. Senideak-en pankarta iraingarritzat jo du eta Senideak bere aldarrikapenak kasu honetan babesten dituen HBren bitartez egin ditzakeela esan du, bitarteko iraingaririk erabili gabe.

Mozioa

Mozioak Almerian dagoen Jose Mari Urdanpilleta presoak Martuteneko espetxera ekartzea eskatzen du. Presoaren aitak izan duen istripu larriaren ondorioz egin du Senideak eskaria. Bi hilabete eman ditu Urdanpilletak Martutenen, baina berriro eraman dute Almeriara.



Alkateak bi aldiz utzi du bertan behera udal batzarra

ALDAKETAK RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIAN Ikusentzunezko medioetara zabaldu da deialdia

Udalak egin du dagoeneko VIII. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren deialdia, eta aurten aldaketa nabarmenak izango dira. Euskal kazetari-tzaren egoera berak aldarazi ditu lehiaketaren ezaugarriak.

Saria sortu zenean euskal kazetaritza bultzatu nahi izan zuen. Gaur egun orain dela zpi urte zeuden hainbat hutsune gainditu direla uste dute antolatzaileek eta sarien esparrua ikusentzunezko medioetara zabaldu dute. Udaleko euskara teknikaria den Patxi Baztarrikaren esanetan, sariak inoiz ez dute audientziak saritzeko bokaziorik izan; kalitatezko euskal kazetaritza baizik.

Aldaketa nabarietak hauek dira: "Baloraziozko kazetaritza" deituriko sariak egunkarietako zutabeaz gain, irrati eta telebistako iritzi saiok hartuko ditu kontuan. Eta lehen gutxienez hiru orrialdeko lanak eskatzen baziren, orain gehienez bi orrialdekoak izan beharko dute. Herri aldizkarietara zuzenduta zegoen saria desagertu egingo da, hala ere herri aldizkarietara aipaturiko edozein sailerako sarian parte hartu ahal izango dute. "Saiakera laburra" deituriko saria bakarrik mugatuko da prentsa idatzira.

"Irrati eta telebistako gidogintza" izeneko sari berria sortu dute. Azken sari honetan kazetaritza ikasketak egiten edota lanean aritu arren, kontratu finkorik gabe ari diren kazetarietara parte hartu ahal izango dute, eta erreportaiaren edukia nahiz gidoi teknikoak hartuko dira kontuan. Azken aldaketa berriz, "Komunikaziobideen herrikuntza" deituriko saria izango da. Irabazleak ez du dirurik jasoko, hala ere komunikaziobideetako lana euskaraz burutzeko herrikuntzarik handiena eta eraginkorrena egin duen pertsona, komunikaziobideak edo erakundea izango da irabazle. Teknologiaren eremukoak, erredakzioaren alorrekoak, publizitatearen esparrukoak edo beste zernahi arlotakoak izango dira epaimahaiak aintzat hartuko dituen herrikuntzak. Bestalde, orain arteko "Erreportaia" saria irrati eta telebistako lanetara zabalduko da.

Epeak eta sariak

1995eko maiatzaren 15etik 1996ko maiatzaren 16ra bitartean aipaturiko edozein mediotan euskaraz ezagutzera eman diren lanek parte hartu ahal izango dute lehiaketan. "Saiakera laburra", "Baloraziozko kazetaritza" eta "Erreportaia" sarietan parte hartu nahi duten lanak maiatzaren 26a baino lehen aurkeztu beharko dituzte udaletxean. Udalak guztira milioi terdi pezeta banatuko du bost sarien artean.

ITZULARRI ANTZERKI TAILERRA

12 urtera arte derrigorrezkoak dira eskolan adierazpen dramatiko saioak

Aurki beteko ditu hamar urte Itzularri antzerki tailerrak. Hirurogeita hamabost lagun inguru aritzen dira bertan, hiru begiraleren ardurapean: Nekane Elizagarate, Joxema Langara eta Nuria Cano.

Txikien tailerrak hiru taldetan banatuta daude eta gazte tailerrak hamaika partaide dauzka. Helduen tailerra irekiagoa da eta partaidetza libre da, monografikoak ere antolatzen dituztelarik. Azken hauek *amateur* mailan aritzen dira han eta hemen antzezlanak eskainiz.

Txikiak eta ludikoak hasten dira antzerkira hurbiltzen: rol-jokoak egiten dituzte, mimika eta dantza lantzen dute eta gorputza ezagutzen saiatzen dira. Urratsak aurrera eman ahala inprobisazioa eta pertsonaiak lantzen hasten dira, eta gazteen tailerrean hasten dira antzezpeneak egiten.



Aisi aldian antzerkia egiteko aukera eskaintzen du tailerrak

Jolasa eta sozializazioa

Haurrek normalean gurasoak konbentzitu behar izaten dituzte tailerrera eramateko, eta Nekane kontatu digunez, guraso batzuei iruditzen zaie, beren seme-alabak behin koskortzen hasten direnean, zeregin serioagoetara bideratu beharko lituzketela. Haur eta gazteek, dena den, primeran pasatzen dute, hori baita beren lehen helburua. Hala ere, antzerkia haurren sozializatorako ariketa ezin hobea da, eta umetako lotsak gainditzeko balio izaten du: "Kanpotik datorrenari batzuetan gure joko eta saioak kaosa direla iruditzen zaizkio, baina hemen ez dago horrelakorik, nahasmen ordenatua eta arautua da geurea. Azken finean, haurrek nahiz helduok espazio librearen bat behar izaten dugu gure espresabidea lantzeko", azaldu digu Nekane.

Adierazpen artistikoa heziketa arautuan sartuta dagoen arloa da, baina gaur egun motibatuta dauden irakasleek baino ez diote ekiten. Horregatik, beste herri askotan bezala, Andoaingo antzerki tailerrak atsedenaaldian hutsune hori betetzera datoz, besteak beste.

500 TXAKUR INGURU DAUDE HERRIAN IDEN- TIFIKATUTA

Aurtengo urtarrilaren lehenetik txakur jabeek derrigorez mikrotxipa jarri behar diete beren txakurrei, idetifikatuta egon daitezen. Horretarako Gipuzkoako al baitari langabetuen elkarteak nahiz herriko al baitariak aritu dira bi egunez beren zerbitzua eskaintzen.

Adierazi digutenez, eta Udaltzaintzak emandako datuen arabera, 500 txakur inguru daude gaur egun herrian idetifikatuta, eta beste hainbat faltako direla pentsatzen dute, baserrietako txakurrak batez ere. Gaur egun herrian txakurren bat galduz gero, Mimendi klinikako al baitariak *lectore* baten bitartez mikrotxipean jasota dauden animalien eta jabearen datuak ezagutzen dituzte, baina aurki udaltzainek ere lan hori egin ahal izango dutela adierazi digute, *lectore*-a erostekotan baitaude.

Kanpainaren helburua herriko txakurren zentsua egitea ere izan da, izan ere gaur egun gutxi gorabehera zenbat txakur izan daitezkeen jakin arren, ez dago datu zehatzik.



SANTA AGEDA BEZPERAN

Larramendi Bazkuneko lagunek kantuz bete zituzten Santa Ageda bezperan herriko kale eta txokoak. Berrogei lagun inguruk hartu zuten parte, eta Ontza elkarteak afari bikaina eginez bukatu zuten ospakizuna ordu txikietan, 45.000 pezeta bildu zituzten elkartekideek.

HEZURRETAKO GAITZEI BURUZKO HITZALDIA

Julian Bereziartua: "Janari egokiarekin sendatzen dira gaisotasun batzuk"

Lizardi etxea txikia gelditu zen urtarrilak hogeita lauko arratsaldean. Herritar asko, edadetuak gehienak, hurbildu ziren Julian Bereziartua sendagileak eskainitako hitzaldia entzutea. Gaia: hezurretako gaitzak, osteoporosia eta artrosia.



Azalpenak arretaz jarraitu zituzten


Ordubete inguru iraun zuen hitzaldiak eta gaitzak nolakoak diren eta aurrikusteko zer egin behar den azaldu zuen Bereziartua: "Hezurretako karea galtzea da osteoporosia, eta guztiok galtzen dugu karea zahartzen garenean" adierazi zuen sendagileak. Hezurretako karearen gabeziak hezurak biguntzen ditu eta ondorioz, hezurrek berezkoa duen itxura galtzen dute eta erraz hausten dira. "Pertsona edadetuak, askotan, bizkarrezurra hausten dute" azaldu zuen sendagileak. Gaisotasuna ekiditeko eta karea gehitzeko, janari egokia jan -esnea edota esnekiak adibidez- eta eguzkia hartu behar dela esan zuen. Hogeita hamabost urte gorakoek egunero gramo bat kare hartu behar dutela gogorazi zuen. "Jana egokia janez kare kopurua igotzen ez bada, botikak hartu behar dira"

esan zuen medikuak, baina zenbait botikekin, kalzitoninarekin hain zuzen ere, kontuz ibili behar dela gaineratu zuen.

Hitzaldi atsegina eta parte hartze handikoa

Artrosis edota desgasteaz ere hitz egin zuen Julian Bereziartua. "Artrosia hezurak lotzen dituen baragia gogortzea da: lotura baragia kare bihurtzea, alegia" azaldu zuen eta beraz, kare gehiegi hartzea ere ona ez dela aipatu zuen. Hezurak zahartzen ari diren seinalea da, eta zama askorekin ibiltzea eta lan asko asko egitea


ekidin behar da hezurrek minik ez emateko. Gaisotasun honek, aurrekoak ez bezala, sendabiderik ez zuela esan zuen: "Botikak mina kentzeko dira eta hezurreko lotura berria egiteko operazioa berriz, hirurogei urte gorako pertsonak bakarrik egitea gomendatzen dut". Bestalde, erreuma gazteen gaisotasuna dela esan zuen eta eguraldiak eragiten duela aipatu zuen. Azido urikoaz, kolesterolaz eta diabetiaz ere egin zituen aipamenak eta guztiak aurrikusteko sendabide amankomun bat aipatu zuen: janari egokia.



**KARROZERIAK
LAGUNAK^S**

TXAPA ETA PINTURA
EGA ZERBITZU OFIZIALA
FURGOI ISOTERMIKOAK
HOZKAILUAK

SORABILLA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN




**AHOLKULARITZA
ARTEZKARITZA**

IRAOLA

ENPRESEN AHOLKULARITZA:
FISKALA, DIRUKONTUENA,
JURIDIKOA, LABORALA,
ASEGURU OROKORRAK

Nagusia, 37
Tlf. 69 27 63
Fax 69 27 74
20150 BILLABONA



**ALOTZ
IZOZKINAK**

Kaleberria, 9 - ☎ 59 07 06
ANDOAIN

07SAB9

Etxebizitzen salerosketa

Kale berria, 58 ☎ 69 08 94
BILLABONA



ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZARAKO ENPRESA KONTRATAZIOA

HBren proposamena atzera bota dute

Ongizate batzordeko buru eta Bideaneko partaidea den Jose Luis Arnaezek etxez etxeko laguntza zerbitzua eskaintzeko enpresa pribatu bat kontratatzea proposatu du Udalbatzan. HBk ordea, Udalak eta bereziki Ongizate batzordeak ardura hori hartzea proposatu du eta horrezaz gain, zerbitzuko langileak herriko jendea izatea. Beste alderdi politiko guztiek atzera bota dute azken proposamen hau.

Jose Luis Arnaez zinegotziak etxez etxeko laguntza egingo lukeen enpresari legegaldia irekiarabera arteko kontratua egitea proposatu du eta denbora horretan enpresak bere lana beteko ez balu, kontratua bertan behera uzteko baldintzak azaldu ditu. Gainera, Ongizate batzordeak enpresarekin hurreman estuak edukitzea proposatu du.

Pribatizazioaren aurka

HBk aldiz, herriko langabetuek zerbitzu hori betetzea eta sei hilabeteko kontratuak egitea proposatu du. Ongizate batzordearen baliabideak zuzenean erabiltzea eskatzen du. Diputazioak eskaintzen dituen dirulaguntzen bidez Udalak zerbitzua doan izango lukeela gaineratuz, EAKoek eta Bideanekoek ordea, enpresa pribatuek kalitate hobea eskaintzen dutela azaldu dute. Jose Luis Arnaezek berriz, esparru horretan ematen diren dirulaguntza urriak eta behar den langilegoaren kopuru zehaztezinak arazoak sortuko lituzkeela esan du. HBk ordea, Udalaren baliabideak eta herriko beharrak lotzea nahi duela adierazi du.

PRESOAK GOSE GREBAN

Euskal Herrian bilduta egotea eskatzen dute

Amnistiaren Aldeko Batzordeak aditzera eman digunez, Jose Angel Apezetxea eta Gervasio Agirre preso billabonatarak gose greban daude Antton Otamendi preso zizurkildarrarekin batera. Urtarrilaren 29an hasi zuten gose greba eta hilaren 13an amaituko dute. Euskal preso politikoek urtarrilaren 15ean hasi zuten txandakako gose greba eta Euskal Herrian bildu arte ekimen ezberdinak egiten jarraituko dutela esan digu AABk.

Bost txanda ezberdinetan burutuko dute gose greba: lehenengoan, Pedro Galarraga zizurkildarra egon zen bi astez. Laugarrenean, otsailaren 27tik martxoaren 13a arte alegia, Jose Lizaso asteasuarrak egingo du gose greba. Azkeneko txandan berriz, martxoaren 13tik 27ra, Alex Uzkiarri billabonatarak eta Jon Tapia zizurkildarrak egingo dute bi asteko baraualdia.

Sakabanaketarekin amaitu arteko grebari ekingo diote eta gose greba martxoan amaituko duten arren, Euskal Herrian bildu arte ekimen ezberdinak burutuko dituztela adierazi dute presoek.

Herri ekimenak

"Euskal gizarteak presoan sakabanaketari amaiera eman nahi dio" adierazi du AABk. Herriko hainbat talderekin bilduko dira horregatik, presoan egoera azaltzeko eta ekimen bateratuak egiteko. Txosten informatibo bat ari dira prestatzen herritarrei egoeraren berri emateko. Bestalde, hainbat enkartelada, manifestazio eta konzentrazio burutzen ari dira "Presoen oinarritzko eskubidea: Euskal Herrian biltzea" lemapean.

AEKAREN IKASTARO BERRIAK

Otsailak hamaseiean amaituko da epea

AEK iazko urrian hasi zen Billabonan klaseak eskaintzen eta berrogei ikasle inguru ari dira euskara ikasten Fleming eskoletako etxean. Euskalduntzea, alfabetatzea eta EGA ikastaroak ematen dituzte euskaltegian eta Udalaren dirulaguntza jasotzen dute. Matrikulatu nahi baduzu, hurbil zaitez Kale Berriko berrogeita zazpi ezkaratzeko lehenengo pisura edota deitu 691964 telefonora.

AIURRI

Dr. Huizi kalea 15. 1-esk

☎ 30 07 32

Faxa 30 07 31

HERRIKO LANAK

PARKE BERRIA

Autobidearen albo batean dago

Hiru Erreketa deitzen zen ingurunean, Komizar ize-neko parkea egin dute. Irurtzun-Andoain autobideak Amasa mendia zeharkatzen du eta autobideko lanak egitean, zulo handi bat egin zuten bertan. Zuloa betzeko lanak egin zituzten eta leku hori aprobetxatzeko egin dute parkea. Eusko Jaularitzak ordaindu ditu parkearen kostu guztiak, autobidea bertatik igarotzearen ordainez edo.

Eraikuntza batzuk egiteke

Parkean, hamalau mahai eta haurrak jolasean ibiltzeko baliabideak daude. Bestalde, mendia babestu nahian, autoak toki batetik aurrera ezin dute igaro eta otordua egin nahi dutenek herriz, parkean dute lekua. Hala ere, janaria prestatzeko suak jartzea eta beste hainbat gauza jartzea falta da.



KIROLDEGIKO ETA IGERILEKUKO LANAK



1997ko udarako bukatu nahi dute

Kiroldegiko eta igerilekuko lanen lehenengo bi faseak bukatu dituzte. Eraikuntza ezarriko duten lur eremua prestatu dute eta egin behar ziren lur mugimenduak bukatu dituzte. Bi igerilekuen zuloak egin dituzte eta eraikuntza egiten hasteko oinarriak ere ezarri dituzte.

Ernio Beheako herritarren zerbitzua

Hirugarren fasean eraikuntza guztia eraikiko dute eta kanpoaldeko hormak eta eraikuntza barruko gelak egingo dituzte. Laugarren fasean teilatua egingo dute eta azkenekoan herriz, kiroldegia eskainiko dituen baliabideak eta inguruko lorategiak egingo dituzte.

Igerileku handi bat eta beste txikiago bat eraikitzeaz gain, futbola, saskibaloia eta antzeko kirolak egiteko kiroldegia egingo dute igerilekuaren gaineko solairuan. Gimnasia egiteko bi gela, aldagelak eta taberna ere ezarriko dituzte alboan.



ERREPIDE BERRIA: UDARAKO AMAITUA

Bihurgune eta irteera arriskutsua kenduko dituzte

Iazko martxoan hasi ziren errepide berria egiteko lanak eta hasierako 1.133 miloiko aurrekontua ez da nabikoa izango errepidearen kostu guztia ordaintzeko. Mila eta bostehun metroko errepidea izango da eta Billabonako sarrera eta irteera seguruagoak izateko ari dira egiten bide berria. Gainera, trenaren zubi azpiko bihurgune arriskutsua kenduko dute.

Bide zaharra erabiltzeko egitasmoa

Tolosatik Donostiarako errepidearen ibilbidea ia bukatu dute baina alderantzizko norabidean datorren ibilbideko lanak ez dituzte egin. Norabide horretako errepidea, oraingo errepideko zati baten gainean egingo dute. Beraz, trafikoa desbideratu egin beharko dute eta horretarako ia bukatzeaz duten errepidearen zatia amaitu beharko dute autoak bertatik igaro daitezkeen. Bestalde, errepide zaharreko zati handi bat hutsik geratuko da errepide berria dela eta. Udala zati hori aprobetxatzeko egitasmo ezberdinak aztertzen ari da.

AHT-REN AURKAKO IBILALDIA

Trena igaroko den ibilbidea egin zuten

Urtarrilak hogeita bati hasi eta hogeita zortzian amaitu zen Abiadura Handiko Trenaren aurkako astea Tolosan. Hainbat hitzaldi eta mahainguru antolatu zituzten eta azken egunean Zizurkil hasi eta Tolosan amaitu zen ibilaldea egin zuten berrehun lagunek. Abiadura Handiko Trena igaroko den ibilbidea ikusi eta trenak ingurugiroan egingo dituen kalteak aztertu zituzten AHTren aurkako asanbladako esanetan.

Zizurkilgo tren geltokitik atera zen ibilaldia igande goizean eta Fraisoroko zelaira igo ziren lehenik eta behin. Bertatik, Zizurkil, Asteasu eta Adunako herrietan trenak eragingo lukeen kaltea azaldu zuten asanbladakoek. Ondoren, Hernialde eta Anoeta aldeko bidea hartu zuten eta eguerdirako Tolosara ailegatu ziren. Ibilaldian zehar ingurune horretan trenak egingo duen bidea ikusi zuten. Oargi elkarrean bazkaldu zuten mendizaleek eta arratsaldean AHTren aurkako kalejira herrikoia egin zuten.

Informazioa zabaltzen

Tolosan antolatutako astea herritarrek informatzeko egin dute. Trena igaroko den herrietako jendeak informatuta egoteko eskubidea duela eta beraien bizilekua defendatzeko es-

kubidea dutela gaineratu digute asanbladakoek.

Adun tunel handi bat igaroko da herriaren erdi-erdiatik eta Zizurkil eta Asteasun berriz, hainbat biadukto egingo dituzte. Horrek guztiak lur mugimendu handiak eta harrobien erakuntza ekarriko luke asanbladako esanetan. Tunelek lur azpiko ura lehortuko lukete eta gainera, herri txikiak isolatuagoak geldituko dira trenak hirien beharrei bakarrik erantzungo baitie.



Informazioa zabaldu nahi dute

ERREPIDE SEGURUAGOA


Bidea asfaltatzeaz gain hesiak jarri dituzte

Zizurkil goiko plazatik Bulandegi bideko bidegurutzeraino errepidea asfaltatu dute. Erreka edota malda dagoen errepidearen zatietan berriz, hesiak jarri dituzte bidearen alboetan. Neurri horiekin errepide horretan gertatu ohi diren istripuak ekidin nahi dituzte.

Giipuzkoako Diputazioa ari da lanak egiten eta errepide horretan gertatu diren istripu ugariak bultzatu zuten Udala Diputazioari eskaera egitera. Hainbat idatzi bidali ondoren kasu egin diete, eta errepidea asfaltatu dute eta hesiak jarri dituzte.

Zauritu ugari eta hildako bat

Nahiz eta errepidean irrist egin, autoak ez dira aurrerantzean maldan behera edota erreka jausiko, alboetan jarri dituzten hesiak direla eta. Hala ere, autoek irrist ez egiteko



Jokin Imaz Etxabe istripuz hil zen iaz

bota dute brea bide osoan zehar eta erabat berritu dute ibilbidea. Istripu ugari gertatu dira errepide horretan eta gehienak Errekalde baserritik Beibatategira arteko zatian. Bertako erreka amildu zen Joakin Imaz Etxabe zena iazko irailan eta jende gehiago ere modu berean amildu da leku berberan. Hala ere, aldapa dagoen zati osoa da arriskutsua, eta askok egin dute irrist bertan. Oro har, herritar ugari zauritu dira errepide horretan eta baita auto ugari hondatu ere.

LANBIDE EZBERDINEN ARTEKO KOORDINAKETAK

GASA ETA BEROGINTZA

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGELTSARITZA



Kaleberria, 9 ANDOAIN TELEF. 59 35 49

Andoain

SAPA: ESPAINIAKO ARMAGINTZA ENPRESARIK ANTZINAKOENA

Espainiako zortzi ehungailu enpresen artean geratzen den bakarra

Hamar urtetan jasotzeko 22.000 milioiko kontratua sinatu du Espainiako Defentsa Ministrari-tzarekin orain dela hilabete batzuk SAPA enpre-sak. Oerlikon enpresa suitzarrarekin arituko da elkarlanean, eta milioiak ere erdibana banatuko dituzte. Hain zuzen ere, duela hamar urte etxe suitzarrak ekoiztutako kanoiak egokitu eta modernizatu beharko dituzte Andoainen. Horre-gatik, etekin ekonomikoari baino gehiago, SAPAko zuzendaritzako kideek ekarpen teknolo-gikoari eman diote garrantzia, punta-puntako teknologia erabili beharko baitute esku artean.

Prestakuntza eta tresnerian egingo dute SAPAn inbertsiorik handiena. Etxe suitzarreko teknikoek eto-rriko dira Andoainera teknologia berrien nondik no-rakoak ezagutzera ematera. Era berean kanoioen egoki-penari ekiteko tresneria berria erosiko dute. Optimetria arloko teknologian gaitu nahi dituzte SAPAn, izan ere mo-dernizazioa arlo horretan emango da, lokalizazio eta pun-terria sistemak hobetzen, SAPAK orain arte ez zuen armagintzan elektronikar arloa landu, kontratu berri honek horretarako aukera emango dio ordea.

Espainiako Defentsa Ministraritza da SAPA-ren bezerorik garrantzitsuen gaur egun, eta aldi berean SAPA arduratzen da Ministraritza-ren armagintza ia gehientsuenaren konponketaz. Dena den, SAPAK 1980. urtean ekoiztu zuen azkenengo kanoia, eta geroztik konponkete-tara mugatu da.

Ehungintza

1995. urtean SAPAren fakturazioaren %65a ehungintzari zuzenduta egon da; armagintzari gainerakoa. 30 urte daramatza arlo berri hau jorratzen eta ekoizten dituzten ehungailuen %90a esportatu egiten dute. Txinara batez ere, izan ere Txinako merkatuan daukate gaur egun


Europako enpresari gehienek begiak jarrita. Hala ere An-doaingoak Australian, Indian eta Hego Amerikan ere mer-katu herriak egiten saiatzen ari dira. Adierazi digutenez, oso esparru zaila da Italiako, Belgikako, Holandako, Suitzako eta Alemaniako etxeek konpetentzia handia egiten baitiete.

1995ean %65a ehungintza; armagintza gainerakoa


Bestalde, krisi garai handiak jasan dituen arloa omen da. Espainian zeuden zortzi ehungailu enpresen arteko bat baino ez da geratzen, SAPA hain zuzen ere.

Historia

1759. urtean eratu zen *Fábrica de armas portátiles de fuego y blancas de guerra de la villa de Placencia*. 1862. urtean *Euzkalduna* gerrarako arma enpresa sortu zen. 1888. urtean *Maxim-Nordenfeld Company* etxe ingelesa-ren eskuetan geratu zen. *Vickers* multinazionalaren eskuetan 1908. urtean. 1935. urtean eratu zen *S.A De Placencia de las Armas* eta 1945. urtean eraiki zen lantegia Andoai-nen. Gaur egun 310 langilek egiten dute lan bertan.



51 urte Andoainen



- kutxa fundazioa
- fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

AURRERA TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!

ZIZURKIL

MAITASUNAZ

Maitemindu batzuen hausnarketak eta irudipenak

Maitasunak, nekez zehaz daitezkeen hainbat eta hainbat sentimendu eta pentsamendu bezala, badauzka mila aurpegi. Baina guk oraingo honetan, San Balentin santuaren ospakizuna aitzakitizat hartuz, bikoteen arteko maitasunezko harremanetara, amodio izenaz ezagutzen den sentimendu horretara mugatu gara. Eta bikoteetara mugatu gara, izan ere, guk jasotako iritzien eta esperientzien arabera, nonbait, "bene-

tako maitasuna" zeharo eskusibista eta normalean nahikoa egoista baita. Iritziak jasotzeko ustez maiteminduta dagoen jendearengana jo dugu, eta egia osoa esan diguten zalantzan gelditu bagara ere, gure artean maiteminduak asko direla jakin izan dugu; are gehiago inork gutxi aldutuko luke gaur egun aldamenean daukan maitea. Jakina da maitasuna eroen eta ausarten ondasuna bakarrik dela.

"Maitasunak eraginarazi dizun erokeriarik txikiena gogoratzen ez baduzu, ez duzu inoiz maitatu"

WILLIAM SHAKESPEARE

Gehienek pentsatzen dute maitasunak eromenarekin baduela zerikusirik, gainerakoan maitasun hori ez dela egiazkoa, ez dela benetakoa. Maiteminduta dagoenak normalean maite duena gordetzeko, bere aldamenean eusteko edozer gauza egingo luke. Edadekoek ordea, zehaztu digute erokeriak, zuhurgabekeriak, orain baino gehiago, garai batean egiten zirela, edozein maitasun adierazpen bekatu zenean, jende aurreko laztanak eta musuak bekatu zirenean, alegia.

"Maitasuna sukarra bezalakoa da; etorri eta joan egiten da boronda-teak prozesuan zerikusirik ez duela"

HENRY BEYLE. "STENDHAL"

Maitasuna, batzuentzat pasioaren pareko, oso beselako beste batzuentzat, kontrolaezina da gehienentzat, nahiz eta maitale guztiek aitortu diguten denbora luzez maiteari eutsi nahi izanez gero, kontrolatu beharra dagoela. Hesi estuak jartzen dizkiote gehienek maitasunari. Maite dutenen bihotzean pertsona batentzat baino tokirik ez omen dagoenez, infideltasunik, hirugarren baten interferentziarik alegia, ez lukete eta, ametituko.

"Eromena ez den maitasuna, ez da maitasuna"

CALDERON DE LA BARCA

Gaur egungo gazteek ordea, bekatutik libre, edozein erataria, edozein tokitan, edozein maitatzeko libre sentitzen direla diote, eta lotsarik gabe bizi dute askok bekatutzat joko luketen maitasuna. Edadekoek ez lukete maite izan duten pertsona aldatuko, baina bai horregatiko, maite izan zuten garaia.

"Hutsegiteak gogorren zigortzen diren jokia da maitasuna"

O.A. BATTISTA

Hutsegiteak gogor zigortzen dira. Zerbait zor zaiola sentitzen duenak garesti kobratuz kitatuko du zorra. Oso gutxi esan digute maitasunak guztiz libre izan behar duela, norberaz ere libre. Maitasuna eta askatasuna uztartezinak dira, antza. Azken finean, maite duena, bere maitearen esklabu ez bada ere, sentitzen duen maitasunaren esklabu baita.

"Maitasunak eder bihur dezake zabarrena ere"

LINDA CLARK

Maitea ezin inola ere zabar edo itsusi ikusi, beti izango da maitalearen begietara edo eta lirain. Edertasunik ez duenari bilatuko dio bestelako xarmarik, eta hori ere ez duenari aurkituko dio erremediorik.

"Maite dudana libre izan dadin nahi dut, baita nitaz libre ere"

ANNE MORROW

Kontraesanak ugariak dira maitasun kontuetan: esaten, pentsatzen eta egiten denaren artean normalean alde handiegia izan ohi da ezer sinesteko.

“Konfidantza handia baldin baduzu, engaina zaitzakete; baina oinazean biziko zara nahikoa konfidantzarik ez baduzu”

FRANK CRANE

Maitale adituak, edota hobeto esateko, urteetan elkarrekin eman duten bikoteek konfidantza oinarritzko araua dela esan digute, baina aldi berean aitortu digute maite duenak nahitaez sentituko dituela zeloak. Derrigorrez sentituko duela maite duena galtzeko beldurra. Maitasuna existitzen denean, berezkoak omen dira zeloak. Zelorik ezean, ez omen dago maitasunik.

— ❧ —

“Maitasuna merkurioa eskuan bezalakoa da: zabaltzen baduzu, bertan gelditzen da; ixten baduzu, ihes egiten du”

DOROTHY PARKER

Zeloak ordea, isilean gorde behar dira beti, isilean jasan, isilean sufritu. Alabaina maitale adituak, infidelitatetzat jo daitezkeen pasadizoak bizi izan dituztenek, pasio ezkutua, ezkutuan bizi behar direla diote halaber.

— ❧ —

“Adinak ez zaitu maitasunatik babesten. Baina maitasunak, hein handian, adinetik babesten zaitu”

JEANNE MOREAU

Hirugarren adina deritzon adin zehazgabeko gizon-emakumeek maitasunak adinik ez duela esan digute. Are gehiago urteek aurrera egin arren, maitasunaren sugarra mantentzen daitezkeela, eta sua txinpartarik ateratzeko gauza ez bada ere, sua berotasuna eta argi bihurtzen dela, leun eta gozo. Zahartzaroan, etxea hutsik geratzen denean, maite den lagun baten konpainiarik bezelakorik ez omen dago.

— ❧ —

“Bigarren, hirugarren eta laugarren maitasuna gogora ditzakezu, baina bat bera ere ez da lehenengoa bezalakoa. Beti dago present”

SHELAGH DELANEY

Askok ordea, konpainiarik gabe iristen dira zahartzarora. Batzuek orduan beste konpainiarik bilatzeko beharrik ez dute sentitzen, heriotzaren mugaz gaindiko maitasunaren konpainian jarraitzen baitute. Beste askok berriz, bigarren edo hirugarren aukera bati irekitzen diote bihotza, eta hutsunea beteko duen pertsona aurkitzen dute. Inork ezin dezake ordea lehenengo maitasun hark ekarritako ilusioa, sortutako esperantza ordezkari. Inozentzia ezin inola ere berriro berreskuratu.

— ❧ —

“Edozein unetan amaitu daitezkeenik ez dugu pentsatzen; horretan datza lehenengo maitasunaren magia”

BENJAMIN DISRAELI

Izan ere magia inozentzia hutsa da, eta horrelako dohainik haurrek eta maitaleek bakarrik senti dezakete. Bizitza, hala ere, beti arduratzen da kamusada bat edo beste sentiarazteaz. Ilusioa zena, magia zena, hauts bihurtzen da orduan: irudikeria, irudikeria eta oroimena.

— ❧ —

“Maitasunaren aurka gehiago maitatzea beste erremediorik ez dago”

HENRY DAVID THOREAU

Maitasunak alabaina, ez du pertsona batetaz maitemintzea eskatzen. Maitasuna maitatzeko gai izatea baino ez da. Egiazko maitaleek orduan oroimeneko mauiak hezuramaitzeko gauza dira, eta oroimen gozo eta leun haietaz berriro maitemintzeko.

— ❧ —

“Gauaren isiltasunean maiz desiratu izan dut gizon baten maitasun hitz batzuk, milaka pertsonen txaloak baino gehiago”

JUDY GARLAND

Gure elkarrizketatuek ez dute inoiz milaka pertsonen txaloak jasotzeko aukerarik izan, pertsona aberatsik zirenik ezin esan. Esperientziari dagokionez batzuk eskarmenturik izandakoak dira, beste batzuek berriz, eskarmenturik inoiz izango ez zutela sinetsita zeuden. Guztiak zeuden ordea, maiteminduta, eta guk esandakoa sinetsi egin digu. Inork kronika honek maitasunarekin zerikusirik ez duela esango baligu, hari ere sinetsi egingo genioke. Izan ere, non aurkitu maitasuna benetan zer den adieraziko digunik?!

Andoain

YOGA: NORK BERE BURUA EZAGUTZEKO BIDEA

Koldo Ruiz: "Orokorrean geure burua %15a baino ez dugu ezagutzen"



AIURRI: Zer da yoga?

Koldo: Yoga geure burua aurkitzeko bidea da. Gizarte honek gauza asko irakasten dizkigu zientzia eta teknika mailan esate baterako, hala ere gizakiarentzat oinarritzko eta funtsezko diren hainbat eta hainbat gai erantzun gabe geratzen dira normalean: gure existentziaren eta bizitzaren adibidez. Yogak nork bere kabuz erantzunak bilatzeko bide bat erakusten digu. Aipatzekoa da, oro har, geure burua %15a baino ez dugula ezagutzen. Dena den, yogaren bitartez zeure buruaren ezagutzan asko sakontzeko aukera baldin badaukazu ere, ez dago inoiz jakiterik oraindik ere zer eta zenbat gelditzen den ikasteko. Yogak barne lana eskatzen du, baina halaber, eguneroko bizitzan erabilera handia dauka.

A: Eguneroko bizitzan zertarako balio du?

Koldo Ruiz hamazazpi urtekin hasi zen yoga ezagutzen. Geroztik ikastaro ugari egin ditu han eta hemen. Indian ere izanda dago eta gaur egun, besteak beste, yoga ikastaroak ematen ditu Andoainen. Badirudi nork bere burua ezagutzeko, aurkitzeko gero eta premia handiagoa daukagula garai nahasi hauetan, gure barrenean daukagun hainbat gabezia ohartzen hasiak gara, nonbait, eta yoga hutsune horiek gainditzeko bide bakarra ez bada ere, azken urteotan gure artean asko zabaldu da. Askok ez dute yoga zer den ongi ezagutzen, eta jakina da, gizakiok, oro har, ezezaguna zaiguna margintzeko eta irrigarritzat hartzeko daukagun joera. Horregatik jo dugu Koldo Ruiz eta bere ikasleengana beren esperientziaren berri eman diezaguten.

K: Gabezia handiak dautzagu orokorrean eta bizitzari aurre egiteko garaian lotsak, beldurrak, beste aurriritziak eta abar oso mugatzen gaituzte normalean. Yogak ziurtasuna, oreka, besteekiko independentzia eta errespetoa, indarra eta beste hainbat baliabide eskaintzen dizkigu eguneroko bizitzari aurre egiteko.

A: Noizkoa eta nongoa da yoga?

K: Orain dela milaka urte, Jesukristo jaio aurretik, Indian sortutako filosofia da. Hala ere, yoga mota asko dardela argitu behar da: maitasuna bitarteko yoga, ezagutzaren bitartekoa, besteak zerbitzatu eta lana eginez lortzen dena, meditazioa bitartekoa, yoga fisikoa eta abar luze bat. Baina azken finean guztiak garamatzate leku berberera: norbere ezagutzara, alegia.

A: Zeintzuk dira yoga egiteko oinarritzko ariketak?

K: Hiru gauza berru behar dira

kontuan: arnasketa, meditazioa eta relajazioa. Odola gure gorputz eta buruko txoko guztietara bel dadin oinarritzko da arnasa ongi hartzea. Arnasketari mugimendu leun batek laguntzen dio normalean, eta hori guztia gure arreta handienaz egin behar dugu, prozesu osoaz ongi jabe gaitzen. Horrela gure gorputzean daukagun energia guztia askatu egiten da, eta baita tentsioak ere.

A: Eta meditazioa zer da?

K: Meditazioak nork bere buruaz arreta handiena izan dezan esan nahi du. Burua ideiez aske utzi behar dugu eta geure sentsazioen gozamina sentitu. Arnasketan kontzentratu beharra dago borretarako. Arnasketa pausatua eta sakonak sentsibilitatea ematen dio gorputz osoari. Geure burutik ideien bat kendu nahi badugu, ezin dugu pentsamendu hori buruan etengabe ibili. Bidea arnasketaren eta meditazioaren bitartez, burua aske uztea da.

Rosa Mari: "Hobeto kontrola ditzakezu tentsio uneak"



Ana: "Egiten duzunaz eta zure bizitzaz askoz ere hobeto jabetzen zara"

A: Erlajazioak ze onura dakartzatza?

K: Gizakiok normalean daukaguna baino energia eta indar gehiago gastatzen dugu, hau da defizita daukagu. Defizitak, besteak beste, gaisotasunak eragin ditzake. Gaur egun medikuntzan eta bezkuntzan yoga erabiltzen hasiak dira. Energia biltzeko eta aurrezteko mediorik onena da erlajazioa. Minutu batzuetako erlajazioak biruz-palau ordutako loaldia ordezkatu dezake.

A: Klaseak nola antolatzen dituzue?

K: Lebenengo meditazioa egiten dugu, kanpotik ekarritako pentsamenduak une batez abazteko. Jarrarian mugimendu batzuk egiten ditugu, postura batzuk, erlajazioa eta azkenik, egokitzen bada, bizkaltalditxo bat. Musika ere erabiltzen dugu batzuetan.

A: Emakumezko gehiago ikusten dira normalean yoga ikasten?

K: Egia esan, Andoainen gizonezko ugari etorri zaizkiz, baina egia da normalean emakumezkoak

lebenago animatzen direla. Barne lana eta ariketak egiteko sentsibilitate handiago daukatela esan daitenke oro bar. Aldez aurretiko jarrera hobetagoa izan ohi dute. Hala ere edonork, edozein adin duela, egin dezake yoga. Eta baurdun dauden emakumezkoentzat lebenengo biltabeteetan oso onuragarria da.

Juan Carlos: "Besteen eraginaz libreago izaten laguntzen dizu"

A: Indian nola lantzen dute yoga?

K: Mendebaldean garrantzi handiagoa ematen diogu beti kanpokoari, gai sozialei: Ekialdean eta Indian bereziki, barrua lantzea

funsezkoa dela uste dute, eta bizitza osoa eskaintzen diote borri. Hainbat tokitan yogaren inguruan sortutako komunitateak daude. Ez dago, hala ere, erlijio bat denik esaterik. Yogak norberarentzat ezezik, gizartea aldatzeko ere bali duela uste dute. Afrikako hainbat herritan, Ghandiren ereduari jarraituz, eta yogaren filosofia zeukaten gidariek zuzenduta, intsumisio zibilararen bitartez independentzia lortu zuten. Guztiok gure barrena aldatuko bagenu, dena bobeto egongo litzateke: ez ginateke ez borren geurekoiak, ez borren kontsumistak izango. Sistemari ordea, ez zaito horrelakorik komeri, borregatik saiatzen da alderdi politikoen eta era guztietako elkarteen bitartez adibidez, gizakiak kanpotik kontrolatzen, barrena ezin baitezake kontrola. Berak ongi baino hobeto dakin barruan izaugarri-zko potentziala daukagula. Baina Mendebaldean bori oso zaila da: kanpora begira bizi gara.

A: Askok muzin egiten diote yogari eta beste horrelako filosofiei.

K: Yoga ez da eszentrikoek egiten dugun gauza arraro edo bitxia. Ez da ez sekta bat, ezta erlijio bat ere. Medioetan askotan horrelako gauzak irrigarri uzten saiatzen dira, azken finean, margintzeko. Hala ere, egia da yoga belburu maltzurerekin erabiltzen dutenak ere badaudela, diru truke salbazioa edota liberazioa eskaintzen duten iraskasleak adibidez. Yoga askoz ere gauza konplexuagoa eta aldi berean xebeagoa da. □



Zizurkil

PATXI OTEGI ESKULTOREAREKIN SOLASEAN

"Harriaren samurtasuna", horrela definitu izan dute bere lana

Arritxipi baserrikoa da eskultore zizurkildarra. Orain dela hemezortzi urte hasi zen harria lantzen. Geroztik, arian-arian, bide berriak jorratu ditu eta askok ez bezala, harria eta egurra bat eginez egiten ditu gaur egun lan gehienak. Natura bera du inspirazio iturri eta etxe ondoko erreka material biltegi. Gaur egun Zizurkilen ber-

tan kokatzeko moduko eskultura baten ideia darabil buruan. Dena den, Patxi Otegi ez da eskultore soil-soilik, eta bere nortasunaz ezer azpimarratzekotan, arte mota ezberdinekiko duen sentsibilitate berezia aipatuko genuke: Patxi eskultura egiteaz gain, margotu egiten du, musikak ere erakartzen du eta idatzi egiten du.

Bere kabuz hasi zen harria lantzen etxean aurkitu zituen tresnaz baliatuz. Betidanik izan du natura oso gogoko, eta txikitatik urte asko eman ditu etxe ondoko errekan eskuz arrantzaz edo harriei begira, besterik gabe. Nola edo hala, harriak errekatik garraiatzen hasi zen, eta beren forma bereziei begiratu, beste irudi batzuk irudikatzen. Horiek izan ziren hastapenak. Baxuerliebeak ere asko egin izan ditu harriak. Baina handik denbora pixka batera harria bakarrik pobre sumar gelditzen zela iruditu zitzaion, eta egurrekin nahastea bururatu zitzaion. Gaur egun ere arlo hori lantzen duen gutxienetakoa da zizurkildarra. Jolaserako pentsatutako egurrezko kutzak dira beste bere berezitasunetako bat.

Lanean bakarrik hasi zen arren, geroztik hainbat eta hainbat eskultore eta artista ezagutu ditu, eta harremanak ere izan ditu beraiekin. Bere lanetako batzuek Nestor Basterretxearen ikutuak badituela aitortu digu. Azken boladan ordea, oso bestelako estilo batek liluratu du Patxi: arte afrikarrak, hain zuzen ere. Eta haien formak, eta bolumenak bere lanetako batzuetan antzeman daitezke. Gaur egun ez ditu neurritz oso eskultura handiak egiten, baina horretarako gogoia ere badaukala esan digu.



Baxuerliebe ugari egin ditu

Inspirazioa naturan

Patxi naturan bizi da eta bere arte lanak egiteko betidanik aurkitu du bertan inspirazioa. Ongi ezagutzen ditu erreka eta erreka bazterretako harriak. Errekan hala ere, harriez gain, beste zenbait bitxikeria ere aurki daitezke askotan, hondakinak eta zaborra batzuetan. Baina Patxi hondakinei itxura artistikoa ematen ere badaki. Eta hainbat eta hainbat traste zahar, arte lan ezin ederrago bihurtu ditu.



BORDA
Jatetxea
A N D O A I N

Albañileria
USABIAGA

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa
Tel. 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)



Burua harrizkoa eta gorputza egurrezkoa

“Errekako harriek irudi asko iradokitzen dizkidate”

Lan urte luze hauetan makina bat erakusketetan hartu du Zizurkilgoak parte, inagurazioak eta jende aurkeko ekitaldiak oso gogoko ez baldin baditu ere. Lasaien eta gustoen Zizurkilen bertan egindako erakusketetan sentitzen dela esan digu. Eta Urruñako erakusketetan batean, ustekabean nazioarteko sariarik ere jaso izan du. Izan ere Patxi Otegiren lanek oso iritzi eta kritika onak jaso izan dituzte beti jendearengandik. Gutxi dira bere lanek erakartzen ez dituenik.

Patxi Otegik ez die beren lanen publikotasunari muzin egiten. Lanen salmenta ordea, ez du inola ere ametitzen. Seme-alabak bezain kuttunak dauzka, bere sorkuntza lanak, eta inolako preziorik jarri eta bere eskuetatik uztea ezinezkoa zaio. Bestalde, arte lanen komertzializazioa sormena bera asko mugatzen duela uste du. Besteen iritzien menpe egoteak ez du inola ere betetzen. Horrezaz gain, epe jakin batzuetan lan egin behar izateak ere oso desoroso sentiarazten du.

Azken bolada honetan Zizurkilen bertan jartzeko eskultura handi baten egitasmoa dauka Patxi buruan. Eraiki dituzten etxe berrien inguruan kokatzeko modukoa izango litzateke, eta Patxi eskultura egiteaz gain, lorategi osoaren proiektua egitea gustatuko litzaioke. Ideia zehatzik landu ez duen arren, baxeri eta nekazal giroa islatzen dituen eskulturak egitea bururatu zaio, gaia tradizionala, baina estetika modernoa erabiliz.

Arte forma ezberdinak

Patxi Otegik artista sena du oso-osorik, eta berak oso-tasunik bilatzen ez badu ere, arte mota ezberdinak lantzeak ematen dio berezitasun hori. Eskulturak egiteaz gain, pintura ere lantzen du. Arteak ideiak adierazteko ezezik, go-

zatzeko eta terapia pixka bat egiteko ere erabiltzen du, bere esanetan. Eta gaur egun beste eskultore batzuekin baino gehiago, batez ere Goierri aldeko margolariekin harreman estua dauka. Arritxipi baserriko eskultoreak musika eta idazmena lantzen ditu gainera.


Pintura du beste zaletasun handia

Aurki, beharbada, Zizurkilgo neska-mutilek ilustrazio ikastaro bat ematen ikusi ahal izango dute Patxi Irirarte Etxean. Ikastarorako hainbat eta hainbat ideia ere landu ditu: ipuin bat osatu du, eta istorio baten bitartez hurbilduko litzuzke Patxi marrazkira, ipuinak dioena marrazkien bitartez landuz, alegia.

Ideiak beraz, ez zaizkio Patxi falta; bai ordea, denbora. Azken boladan baserriko lanek kentzen diote eskulturarari eskaini nahiko liokeen denbora. Hala ere, bere afizioari eutsiko diola ez dauka inongo zalantzarik, eta lehenago edo geroxeago murgilduko da berriro burubelari arte lanetan.

Orremendi
Kirolak

**AUKERA ZABALA
KIROL ARTIKULUETAN**



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

NEREOLUIS

Aseguruak ARGENTARIA

Amelia Kortaiz Jarama

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34
ZIZURKIL

EZKONGABEEN ETA EZKONDUEN ARTEKO FUTBOL PARTIDUA. 1964



Goian: Andres Aranburu.

Beheran ezkerretik eskuinera: Martin Jonsansoro, **Miguel Maria Cardoso**, Migel Maria Arregi, **Antton Maria Imaz**, Jesus Maria Jauregiberri eta Miguel Maria Lizarraga.

Eskuinaldean argazkian atera nahian ageri den mutikoa berriz, Migel Maria Zabala da.

Antton Maria Imazek argitu dizkigu futbol partiduaren nondik norakoak eta bertakoen izen abizenak. Argazkia berriz, **Miguel Maria Cardosok** utzi digu.

Zizurkil beheko gazteen arteko futbol partidu bateko irabazleak dira argazkian ageri direnak. Partidua ordea, ez zen edonolakoa izan: herriko gizon ezkonduak eta mutil ezkongabeek elkarren aurka jokatu zuten. Bi urtetan bakarrik egin ziren era horretako saioak Zizurkil beheko jaietan. Aipaturiko partidua

ezkongabeak irabazi zuten, eta ardoz heteriko garrafoia jaso zuten sari moduan. Argazkian ageri diren ezkongabe sarituen artean erdiak oraindik ere ezkongai jarraitzen dutela esan digute bitxikeria moduan. Pedro Mari Otaño eskola inguruko zelaian jokatzen zituzten partiduak eta herritar ugari hurbildu ohi ziren lehiak ikustera.



XIXORI
BELARDENDA
DIETETIKA ZENTRUA
KONSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

Joxe Ramon
— TABERNA —

PINTXO EDERRAK !!

Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN

JUAN IGNAZIO UGARTEMENDIA

Billabonatarra; langilea;



- Inork gutxi ezagutzen duen zaletasuna omen daukazu...

- Egia da inork gutxi ezagutzen du. Bestalde, sekulako gauzik ere ez dut egin. Orain dela urte batzuk inguruetako herrietako baserrien argazkien bilduma egiten hasi nintzen.

- **Eta nolatan bururatu zitzazun borrelakorik?**

- Oso mendizalea izan naiz beti, eta intera ugari egiten nintuen orduan. Aldi berean argazki ikastaro bat egin nuen. Eta mendira joaten nintzen aldiro argazkiak egiten nintuen. Baserri inguruak erakartzen ninduten, batez ere; etxe atariak, belar metak, langak, edozein tresna... Eta konturatu nintzenerako argazki mordoa neuzkan.

- **Zenbat daukazu guztira?**

- 50-60 argazki inguru dauzkat.

- **Zein herritakoak?**

- Amasamendi ingurukoak eta Zizurkilgoak bati-pat. Baita Asteasukoak ere.

- **Eta nola antolatu zenuen lana?**

- Hainbat eta hainbat argazki neuzkala konturatu nintzenean, zentsuaren bitartez gainerakoak bilatzen saiatu nintzen. Horrezaz gain, beti izan dut joera baserriko zabarrekin batez ere, bitz egiteko, eta poliki-poliki baserrien historiak eta bertako bitxikeriak jasotzen hasi nintzen. Beraz, argazkiei baserrien historia laburra eraman eta bururatu zitzaidan. Orduan artxibategietara jo nuen, udal artxibategietara nahiz elizakoetara. Horrek kasu batzuetan lagundu zidan. Asteasuko artxibategia adibidez, oso aberatsa da, eta bilduma polita egin daiteke. Billabonakoa berriz nabikoa urria da. Asteasun bestalde, oraindik zutik dauden errota bilatzen eta argazkiak ateratzen hasi nintzen.

- **Baserrietako historiari dagokionez, gauza bitxirik aurkitu al duzu?**

- Apostu baten bitartez baserria eskuratzea lortu zuten istorioa iruditu zitzaidan adibidez bitxia.

- **Noiz hasi zinen bilduma egiten?**

- Orain dela lau urte inguru.

- **Gauza zebatzik egitea bururatu al zaizu?**

- Orduan lan honetan erabat murgilduta nengoen, baserri guztiak eta bideak kokatuz mapa bat egitea bururatu zitzaidan. Baina gaur egun nabikoa utzita daukat dena. Ez daukat denborarik.

- **Baina basitako lana inoiz bukatzeko asmoa izango duzu...**

- Bai, argazkiak egiten jarraitzen dut eta egunen batean bukatuko dut bilduma. Gainera, elkarriketa hau dela eta, asmoa ere zuzpertz zaidala esan behar dut.

PERTSONAIA EZKUTUA

Pertsonaia ezkutua izeneko lehiaketaren aldi berri bati emango diogu zenbaki honetan hasiera. Pertsonaia ezkutu hau asmatzeko ez dauka, gure ustez, bestelako zailtasun berezirik. Bi arrazoigatik gainera: telebistak oso ezagun bihurtu du eta ingurukoa da.



Andoingo Zirauna kirol etxeak eskaini digu orain honetan saria, eta ez nolana hiko gainera: **Euskadiko futbol selekzioko prakak eta kamiseta**. Tira bada, anima zaitzete futbolzaleak zeratenak eta ez zeratenak, etxerako ez bada, arropa nori oparitu izango duzue eta!

Honako helbidera bidali itzazue zuen gutunak:

AIURRI aldizkaria. Dr. Huizi 15. behe-eskuina. 20.140 Andoain.



KIROL JANTZIAK

Zirauna

Ama Kandida etorbidea, 6 Posta kutxatila 110 - 59 44 47

ANDOAIN

HITZALDIAK**ADUNA**

Otsailak 21: Bularreko minbi-ziaren prebentzioari buruzko hitzaldia 16.30etan Kultur Aretxean.

ANDOAIN

Otsailak 14: "Euskal abertzale-tasuna Madrilén". Hizlaria: Xabier Albistur. Kultur Etxean 20.00etan. Antolatzailea: Andoaingo EAJ-PNV.

IKUSENTZUNEZKOAK**ZIZURKIL**

Otsailak 22: Javier Juanesen "Euskal Herriko ihatuariak" Iriarte Etxean 19.30etan.

LEHIAKETAK**ANDOAIN**

Ihauteritako maskara lehiaketa: Maskarak edozein materialez egin daitezke. Gaia librea. Lanak Kultur Etxean aurkeztu beha dira **hilaren 12a baino lehen**. Bost sari egongo dira 8-14 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat. Erakusketa hilaren 16-20 bitartean egongo da Kultur Etxean ikusgai.

"Martxoak 8: Emakumearen Nazioarteko Eguna 1996" kartel lehiaketa: 16 urte gorako herritarrek parte hartu ahal izango dute. **Hilaren 12-16 bitartean** aurkeztu behar dira Kultur Etxean lanak. 40.000 pezetako sari bakarra egongo da.

IBILALDIAK**ANDOAIN**

Otsailak 11: Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta Batsikaboa (1.990m)-Mota (1.315m)-Sobrón bost orluko ibilaldia.

ANTZERKIA**ANDOAIN**

Otsailak 9: **Bederen 1 taldeak "Zu (+)gabe"** antzazlana eskainiko du La Salle antzokian 20.00etan. Pilar Rodríguez andoaindarra da antzezle eta bat Felipe Barandiaranekin batera.

BESTE**IHAUTERIAK
ANDOAIN**

Otsailak 10: **Kaldereroak**. Ontza elkartetik irtengo dira 22.00etan eta Goikoplazan jarriko dute jarraian **kanpamendua**.

Otsailak 15: **Ikastetxeko neska-mutilek mozerrotuta desfilea** egingo dute txalapartak eta dultzainariak lagunduta. 16.00etan **maskara lehiaketaren sari banaketa** egingo da Kultur Etxean. 19.00etan "**Los mitos en el carnaval vasco**" hitzaldia eskainiko du J.A. Urbeltzek.

Otsailak 16: **19.00etan udal musika bandako ikasleek ihauteri kontzertua** eskainiko dute La Salle-Berrozpe ikastetxean. 23.00etan

mozerrotuen dantzaldia izango da Goikoplazan.

Otsailak 17: 11.00etan aurrera **mozerrotuen eta konpartsen desfilea** "Incansables" txarangak alaituta. 21.00etan dantzaldia Goikoplazan AGIRREN taldearekin.

Otsailak 18: 18.00etan dantzaldia ELURTE taldearekin. 22.00etan **sardinaren segizioa** Beheko plazatik irtengo da. **Sardinaren chorzketa** Goikoplazan izango da.

ZIZURKIL

Otsailak 15: **Hiru ikastetxetako ikasleek** kalejira egingo dute. Arratsaldean merienda izango da eta ikasleek polka dantzatuko dute.

ANDOAIN**La Salleren 50.
urtemuga**

Otsailak 22: Hitzaldia 19.00etan: "**El papel de la escuela profesional del futuro en el mundo de la diversidad y de la marginación**".

Otsailak 23: Antzerkia.

Otsailak 24: **Eskola arteko olinpiadak**. Zinema eta dantzaldia Iratxo taldearekin.

SAPA ETA ARMAGINTZA

A benduan estatuko gobernuak SAPA armagintza fabrikarekin kontratu berri bat egin zuen; bertan 22.000 milioiko inbertsioa egingo da kanoiak berritzeko. Lan honek Andoaingo SAPA lantegiak hartuko du parte.

Antimilitarista ikuspegi batetik armagintza industriaren aurka gaude. Ez al da hipokresia gerren aurka egotea eta armagintza bultzatzea?

Guk fabrika mota honi aurkitzen diogun irtenbidea ez da hauek ixtea, baizik eta produkzioa aldatzea: armak egiteari utzi eta beste produktuak egitea. Adibidez, Andoaingo SAPAn gaur egun produkzioaren %60a josteko makinek osatzen dute.

Badakigu gai hau zaila dela: SAPA Andoaingo enpresa da aspaldidanik, 250 langile ditu... Horregatik gure proposamena birmoldaketa da.

Andoaingo Talde Antimilitarista


KOMIKIA

SAGARDOTEGIA
JATETXEA

URRITZA

7. Area - Poligono Industriala (Behe solairua)
20.150 ADUNA ☎ 69 33 96

(LEHEN PAGAMUÑOKOAK)




*Urte osoan
zabalik*



*Eguneko
menua*

BEREZITASUNAK

*Makailoa pil-pilean
Makailoa frijitua
eta
Txuleta ederrak*



VILLABONA - ZIZURKIL

Bailarako ikastola

☎ 69 23 21

JESUSEN BIHOTZA

ikastola



Gure ikastolaren berezitasunak:

- ☞ Ikastetxe gaurkotua.
- ☞ Irakaskuntza euskalduna, baina laugarren hizkuntza inkorporatua.
- ☞ Printzipio etiko eta moraletan oinarritua.
- ☞ Esperientziduna eta kalitatezkoa.
- ☞ Elkarlanean trebatua.

Irakaskuntza motak

Haur hezkuntza: 2urtekoentzat gela
"HAURTXOA" Proiektua.

Lehen hezkuntza: 6urtetik 12ra
"AXELKO" Proiektua.
"OTSOKO" Proiektua.
"BELEKO" Proiektua.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
"OSTADAR" Proiektua.

AURREMATRIKULA

OTSAILAREN 1etik 20ra

Izenematea ZENTROKO IDAZKARITZAN
Kale berria, 49 (Lehen pisua)

Goizez: 9.00 - 12.30.
Arratsaldez: 4.00 - 6.00

"FAMILIA LIBURUA", kontu
korrontearen zenbakia eta
seme-alabaren argazkia.